



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: BIOLINA

2023-02-25

Nori zuzenduak?

Graduko **Biolin Interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren 17an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Biolin interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

BUCATARU, Catalin; GOURDJIA, Liana; ITURRIAGAGOITIA, Aitzol eta SAMOUIL, Tatiana

9:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita ere egingo zaio. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30 Musikeneko biolin ikasleen eskutik emanaldia

11:30-13:30 Biolin irakasleen eskutik eskolak Musikeneko ikasleei eta Jardunaldian izena eman duten ikasle aktiboek

Atsedena

15:00-19:30 Biolin irakasleen eskutik eskolak Musikeneko ikasleei eta Jardunaldian izena eman duten ikasle aktiboek

19.30 Jardunaldiaren amaiera

Biolin jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin: dpto.cuerda@musikene.net